

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MEMORIA

II. BERDINTASUN PLANA

2014-2017
UPV/EHU

www.ehu.eus





AURKIBIDEA

I. Sarrera.....	1
II. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza.....	2
Helburua	2
Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera	3
Berdintasun Batzordea.....	3
III. Jardun ildoak	4
1. Prestakuntza lortutako emaitzak	4
1.1. Irakasleentzako prestakuntza presentziala	4
1.2. AZPkoentzako prestakuntza presentziala.....	5
1.3. Ikasleentzako prestakuntza.....	6
1.4. Online prestakuntza.....	8
2. Ikerketan lortutako emaitzak.....	14
2.1. UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko AKADEME programa	14
2.2. Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria.....	15
2.3. UPV/EHUko Doktorego ikasleak jardunaldietara, biltzarretara eta mintegietara joateko laguntzen deialdia.....	16
3. Unibertsitate bizitza	17
3.1. Sexu aldagaia sartzea.....	17
3.2. Hirugarren markagailua.....	17
3.3. Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa.....	17
4. Unibertsitate hedakuntza	20
4.1. Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea.....	20
4.2. Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizartean.....	20
4.3. Diru laguntzetarako deialdia UPV/EHUen emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero aniztasuna bultzatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatzeke	22
4.4. UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan.....	23
I. Eranskina	24
II. Eranskina.....	26
III. Eranskina	27
IV. Eranskina	28



I. SARRERA

Berdintasuna pertsona guztien funtsezko eskubideetako bat da, eta, askatasunarekin batera, oinarrizkoa da gainerako eskubideen ariketarako. Berdintasunerako eskubidea babesten duen lege esparru bat edukita, pentsa genezake emakumeak baztertzeko egoerak ez direla ematen. Errealitatek, ordea, kontrakoa erakusten digu. Aldea dago, beraz, lege berdintasunaren eta berdintasun errearen artean, eta, aurreratutako arren, agerikoa da oraindik bien arteko tartea.

Unibertsitateok ikerketa, irakaskuntza eta transferentziaren bidez ematen dugu goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa. Funtsezko eragileak gara, berdintasun errearen helburua lortze aldera. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Berdintasunerako II. Plan hau (2014-2017) unibertsitateak zerbitzatzen duen gizartearekin duen konpromisoaren emaitza da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Plana (2010-2013) izan zen bezala. Plan hau sortu eta Unibertsitateko kideok proposatutako helburua lortzeari begira aurrera pausuak emateko pertsona guztien ahalegina beharrezkoa dela benetan sinesten dugulako.

II Berdintasun Planaren Memoria honetan aipatutako planaren ebaluazio bat egin nahi da eta azken lau urteetan egindako lanaren emaitzak aurkezten ditugu. Horretarako prestakuntza, ikerketa, unibertsitate bizitza eta unibertsitate hedakuntza ardatzetan izandako emaitzak hartu ditugu ikerketako irizpide bezala. Horretaz gain, plan honen garapenak izaera bikoitza izan du: batetik zeharkakotasun eta globaltasun helburuak, eta, bestetik, Plan honen xede diren pertsonen onura zuzenean eragiten duten ekintza zehatzak. Bi mailen konbinazioak aurrerago azaltzen diren aurrerapenak ekarri ditu eta hurrengo planaren abiapunturako balio digute.

II. UPV/EHUKO BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA

UPV/EHU, unibertsitate publiko den heinean, emakume eta gizonen berdintasunarekin konpromiso irmoa du. Horrela adierazten du, bestek beste, Estatutuetao 4.3 artikulua: *UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat. Beraz, UPV/EHUK aintzat hartuko ditu honako printzipio hauek: aukera berdintasuna, aniztasunaren eta diferentziaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rola eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkariak parekatua.* Aipatutako artikulua gaineratzen du kontutan izango direla ondorengo printzipioak, hala nola, aukera berdintasuna, aniztasunaren eta ezberdintasunaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberrako rol eta estereotipoak ezabatzea eta presentzia orekatua.

Emakume eta gizonen berdintasun errealararen aldeko bide honetan, 2006an UPV/EHUKo Berdintasunerako Zuzendaritza eratu zen (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua) kide bakarrek kargu akademiko bezala. 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxa jartzera bultzatu baino urte bat lehenago. Zuzendaritza honen sorrera euskal gizarteko inguru eta espazio desberdinetako aukera berdintasunarekin konprometitutako pertsona talde baten, gehienak emakumeak, aurretiazko lanaren emaitza izan zen.

Berdintasunerako Zuzendaritzak 2007an UPV/EHUKo Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin zuen eta emaitza gisa unibertsitateko kolektiboen – ikasle, AZP eta IIP – egoera azalerazi zuen sexuka banatuta unibertsitateko esparru ezberdinetan.

Diagnostiko honen ostean, Unibertsitateak 2009ko maiatzean onartu zuen UPV/EHUKo Berdintasun Batzordea sortzea, lehenatasuneko funtzio bat esleituz: UPV/EHUKo Emakume eta Gizonen I. Berdintasun Planaren elaborazio prozesua koordinatzea; honek Unibertsitateak berdintasunaren inguruan jarraitu beharreko lan-ildoak zehaztu beharko zituen. Urte bat beranduago, 2010/2013 I. Berdintasun Plan honen elaborazio lanak amaitu ostean, Gobernu Kontseiluan aurkeztu zen bertan onartu ahal izateko, Unibertsitateak genero berdintasunaren inguruan duen konpromisoa berretsiz. I. Plana exekutatuta eta UPV/EHUKo Berdintasunerako Batzorde Intersektoriala – IIP eta AZP funtzionarioen eta IIP eta AZP laboralen Batzorde Negoziatzaileetatik - Unibertsitateko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana egin eta onartu zen (2014/2017).

Momentuotan UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza Unibertsitateko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana lantzen ari da (2018/2021).

Berdintasunerako Zuzendaritzaren osaera

Zuzendaria: Leire Imaz Zubiaur	leire.imaz@ehu.eus	946012172
Teknikaria: Enara Agirre Arrizabalaga	enara.agirre@ehu.eus	946018039
Idazkaria: Ana Isabel Ríos Hernández	anaisabel.rihe@ehu.eus	946012171

Berdintasun Batzordea

Belen Bengoetxea Rementeria	Arteen eta Giza Zientzien irakasle-ikertzailea
Koldo Telleria Andueza	Arkitektura eta Ingeniaritzako irakasle-ikertzailea
Carmen Manzano Basabe	Zientzietako irakasle-ikertzailea
Jokin Azpiazu Carballo	Gizarte eta Lege Zientzietako irakasle-ikertzailea
Elena Diaz Ereño	Osasun Zientzietako irakasle-ikertzailea
Eneritz Ugarte Velasco	AZPko langilea
Julen Zabala Alonso	AZPko langilea
Unai Villena Camarero	Graduondoko ikaslea
Ainize Etxeberria Murgoitio	Graduko ikaslea

Era berean, **UPV/EHUko ikastegi bakoitzean Berdintasun Batzorde bat dago.**


III. JARDUN ILDOAK

1. Prestakuntzan lortutako emaitzak

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren helburuetako bat, genero ikuspegia eta ikuspegi feminista irakaskuntzaren arloan barnera daitezzen sustatzea da. Horretarako, hainbat prestakuntza ikastaro diseinatu eta bultzatu ditugu unibertsitateko kolektibo guztientzat:

1.1.- Irakasleentzako prestakuntza presentziala

UIPPren deialdien bidez, SAE_HELAZek antolatuta, hainbat prestakuntza ekintza eskaini izan zaizkie unibertsitateko irakasleei:




1 Irudia: IIPen parte-hartzea Berdintasunerako Zuzendaritzak antolatutako ikastaroetan

Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan, UIPPren bidez irakasle-ikertzaileei eskaini zaien prestakuntzak bilakaera irregularra izan du. Alde batetik, UPV/EHUko irakasleen artean *Diskurtoaren analisi kritikoa ikuspegi feministatik* ikastaroak izan du harrera onena, hainbat aldiz eta campusetan eman baita. Gizonezko irakasle gehien erakarri dituen ikastaroa, berriz, *Gizonak berdintasuna eraikitzen? Aurrerapenak eta erresistentziak XXI. mendean* izan da.

Hurrengo edizioei begira, gomendagarria izango litzateke ahalegin guztiak irakasleei benetan interesatzen zaizkien prestakuntza ikastaroetan jartzea; batik bat, aplikazio praktikoagoa badute, lotura gehiago aurkeztuz bere jardun akademikoarekin.

1.2.- AZPkoentzako prestakuntza presentziala

AZPko Langileen Prestakuntzarako Kabinetearen bidez, honako prestakuntza ekintza hauek eskaini dira:



2 Irudia: AZPkoen parte-hartzea Berdintasunerako Zuzendaritzak antolatutako ikastaroetan.

2016an beste urteetan baino prestakuntza ekintza gehiago eskaini zirenez parte-hartzaile kopurua handiagoa izan zen. Ikastaroak funtsean gai hauen inguruan izan dira: berdintasunean komunikatzea, aurrekontu publikoak genero ikuspegiarekin eta sexu indarkeria unibertsitatean.

Horretaz gain, kontutan izan behar da 2018an AZPkoen eskaintako prestakuntza unibertsitate osorako eskaintako online ikastaroak izan zirela, ez zen Prestakuntza espezifikorik egin.


Parte-hartzaile gehien izan zituen ikastaroa *“Comunicar en igualdad: cómo evitar los usos sexistas del lenguaje”* izan zen, argi ikusten da AZPkoen interesa gaiaren inguruan.

1.3.- Ikasleentzako prestakuntza

Berdintasunerako Zuzendaritzak genero ikuspegia bultzatu nahi du ikasleek aurkeztutako gradu (GRAL) eta master (MAL) amaierako lanetan. Horretarako, 2012az geroztik, gradu eta master amaierako lanetan genero ikuspegia txertatzeagatik sari hauek ematen zaizkie UPV/EHUko ikasleei:

Genero ikuspegia gradu amaierako lanetan barne hartzearen Francisca de Aculodi saria

UPV/EHUko emakume eta gizonen Berdintasunerako II. Planaren (2014-2017) 1.4.2 puntuari aurreikusitako ekintza betetz, "Genero ikuspegia barneratzen duten UPV/EHUko lan onenei emandako Francisca de Aculodi -gradu amaiera- (...) sariak errotzea", alegia, UPV/EHUK FRANCISCA DE ACULODI sariaren V. ediziorako deialdia egiten du gradu amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatezteko, jakitera emateko eta saritzeko.



3 Irudia: Francisca de Aculodi saria aurkeztu diren GRALak

Ikus daitekeenez, sariaren presentzia areagotzen joan da urtez urte; egia da, halere, oraingoz parte hartzea diziplina tradizionaletan ematen dela batez ere, hala nola gizarte edo giza zientzietan, eta ez du gora egiten, ordea, ingeniari bezalako diziplina maskulinizatuagoetan.

- I. eranskinean, lau edizioetan saria irabazi duten GRALen datuak bildu dira.

UPV/EHUko Master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzearen Maria Goyri saria

UPV/EHUko emakume eta gizonen berdintasunerako II. Planaren (2014-2017) 1.4.2 puntuan aurreikusitako ekintza betez, "Genero ikuspegia barneratzen duten UPV/EHUko lan onenei emandako (...) María Goyri -master amaiera- sariak errotzea", alegia, UPV/EHUK MARIA GOYRI sariaren VII. ediziorako deialdia egiten du master amaierako lanetan genero ikuspegia barne hartzeari dagokionez, ikasleek ezaugarri horrekin eginiko lanik onenak aintzatesteko, jakitera emateko eta saritzeko.

	AURKEZTUTAKO MASTER AMAIERAKO LANAK	
	Guztira	Jakintza arloen arabera
I. Edizioa (2011/2012)	8	7 Gizarte eta Lege Zientziak 1 Arte eta Giza Zientziak
II. Edizioa (2012/2013)	3	3 Gizarte eta Lege Zientziak
III. Edizioa (2013/2014)	12	7 Gizarte eta Lege Zientziak 4 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak
IV. Edizioa (2014/2015)	9	5 Gizarte eta Lege Zientziak 4 Arte eta Giza Zientziak
V. Edizioa (2015/2016)	12	6 Gizarte eta Lege Zientziak 5 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak
VI. Edizioa (2016/2017)	17	10 Gizarte eta Lege Zientziak 6 Arte eta Giza Zientziak 1 Osasun Zientziak

Maria Goyri saria finkatuta dago, eta gero eta ikasle gehiagok parte hartzen dute. Francisca De Aculodi sarian bezala, hautagai gehienak Gizarte eta Lege Zientziak eta Humanitateen arlokoak dira; gutxien feminizatutako diziplinetan, ordea, ia ez da lanik aurkeztu.

- II. eranskinean, sei edizioetan saria irabazi duten MALen datuak bildu dira.

1.4.- Online prestakuntza

II. Berdintasun Planaren ardatzei jarraituta, 2017an hainbat online prestakuntza modulu abiarazi ziren unibertsitateko irakasle-ikertzaile, AZPko langile eta ikasleentzat: prestakuntza, berdin-berdina hiru kolektiborentzat, ikasleei kreditu aitortza ofiziala eskainiz. Prestakuntza ekintza hauek aurrera eramateko kanpoko hainbat entitate aukeratu ziren.

Hizkuntza inklusiboa

“Pikara Magazine” komunikabide digitalak *Hizkuntza Inklusiboa* ikastaroa prestatu zuen euskaraz zein gaztelaniaz. Ebaluazio panela aipatutako komunikabideko profesionalen eta UPV/EHUko irakasleen zegoen osatuta.

“Izendatzen ez dena ez da existitzen” lemapean, kazetari, filologo pedagogo eta antropologok hizkuntzaren garrantzia azpimarratu dute kultura patriarkalaren elementuak hedatzeko orduan. Bertan gizona erreferentziazko subjektu bilakatzen da eta emakumea alteritatea. Ekarpene teoriko hori, erakunde, erakunde sozial, enpresa, sindikatu, ikastetxe edota komunikabideen ekintzetara gehitu da giden edo prestakuntzen bitartez. Hala ere, ekintza hauek barregarri utziarazi dira behin baino gehiagotan, baita hizkuntzako akademiko esanguratsuen partetik ere.



Hizkuntza inklusiboko ikastaroa pack bateko parte zen, gida oso, mini-gida eta bideo batez gain. Honekin hizkuntza inklusiboaren erabilera erraztu nahi zen gure unibertsitatean.

Hezkidetzaren alde busti!

Hezkidetzaren alde busti! ikastarorako *Hezkidetzan esku hartzen* ikastaroa antolatzen duten hezkuntzako profesionalekin jarri ginen harremanetan. Profesional hauek, ikastaroko materiala formatu txikiago batera moldatzeaz gain, irakasle eta tutore lanak ere egin zituzten. Ebaluazio panelean, aipatutako profesionalak eta UPV/EHUko irakasleak zeuden.

Ikastaro honen helburua etorkizunean adin txikikoekin lan egingo duten ikasleak hezkidetzan formatzea da. Hori dela eta, fakultate konkretu batzuetako ikasleei baino ez zitzaien eskaini: Letrak, Hezkuntza, Hezkuntza eta Kirola, HEFA eta Lan Harremanak eta Gizarte Langintza. Ikastaro hau, besteak ez bezala, euskaraz bakarrik eskaini zen eta 75 orduko iraupena zuen.



Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak

Ikastaro bi hauek, euskaraz zein gaztelaniaz, Emakunderekin batera egin dira. Emakundek materialak prestatu dituen bitartean, UPV/EHU ikasle parte-hartzaileez eta plataformaz arduratu da. Irakasleen panela UPV/EHU barruko eta kanpoko irakasleez egon da osatuta.

Emakume eta gizonen berdintasuna ikastaroak ikasleek errealitatea genero-ikuspegitik hobeto ulertu ahal izateko ezagutza teoriko-praktikoak lortzea izan du helburu. Gainera, genero-diskriminazioak hautematea eta horiek gainditzeko proposamenetan aurrera egitea ahalbidetuko duten askotariko tresna teoriko eta metodologikoetan trebatu beharko dira. Horretaz gain, mugimendu feministaren historia ezagutzea nahi da, egungo egoera ulertzeko ezinbesteko marko gisa.



Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak ikastaroak ikasleek gure gizartean maskulinitasunaren eraikuntza soziala aztertzeko gaitasun teoriko eta praktikoak garatzea izan du helburu. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egitea da asmoa, eta, horretarako, errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak eta errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak eskuratu behar dira. Gure gizarteetan dauden maskulinitasunaren adierazpen anitzak ere jorratuko dira, baita horrek emakumeei eta gizonei beraiei ekartzen dizkien ondorioak ere.






I. Online ikastaroen edizioa, 2017/2018 ikasturtea


ONLINE IKASTAROA	NORENTZAT	IRAUPENA	ESKAINITAK O PLAZA KOPURUA	IZEN-EMATEAK			AKREDITATUTAKO PERTSONAK		
				EMAKUMEA	GIZONAK	EZ- BITARRAK	EMAKUMEA	GIZONAK	EZ- BITARRAK
Emakume gizonen berdintasuna (euskaraz gaztelaniaz) eta eta	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	400	492	130	5	228	51	1
Hizkuntza inklusiboa (euskaraz gaztelaniaz) eta eta	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	400	492	123	10	188	41	4
Maskulinitateak. Gizonak berdintasuna: erronkak erresistentziak (euskaraz gaztelaniaz) eta eta	Ikasle, IIP eta AZPkoentzat	25 ordu	400	348	142	0	145	56	0
Hezkidetzaren alde Busti!	Ikasleentzat (HEFA, Hezkuntza, Kirola, Gizarte Langintza eta Psikologia)	75 ordu	200	165	28	7	99	14	5
GUZTIRA			1400	1497	423	22	660	162	10

BERDINTASUNA




4 Irudia: Berdintasuna ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa

HIZKUNTZA INKLUSIBOA




5 Irudia: Hizkuntza Inklusiboa ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa


MASKULINITATEAK



6 Irudia: Maskulinitateak ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa



7 Irudia: Hezkidetzan ikastaroan akreditatutako pertsonen ehunekoa



8 irudia: Ikastaro guztietako akreditatutako pertsonen ehunekoa

2. Ikerketan lortutako emaitzak

Hainbat azterlanek eta UPV/EHUko ikerketen esparruan emakumeen eta gizonen parte hartzeari buruzko diagnostikoak (2007-2011) berak erakutsi dute ikerketetan desberdina dela emakumeen eta gizonen egoera. Horren arabera, dagozkion neurriak hartu beharko dira, berdintasunerako bidean aurrera egiteko.

Ekintza positibo bezala ikerketa proiektuak aipa genitzake, berdintasunaren arloan eta gutxiegi ordezkaturik dauden beste batzuetan, 2 puntu gehiago ematen dira, INA emakumea bada.

Oinarri honetatik abiatuta, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak ondorengo ekintzak jasotzen ditu:

2.1.- UPV/EHUko emakume akademikoen lidergoa bultzatzeko **AKADEME** programa

Berdintasunerako Zuzendaritzak, HELAZekin batera, **AKADEME programa** ezarri eta eskaintzen du 2015/2016 ikasturtetik, UPV/EHUko emakumezko akademikoen lidergoa bultzatzeko. Haren helburu nagusia emakume akademikoen lidergo gaitasunak hobetzea da, eta parte hartzaileen arteko babes sare batean parte har dezaten sustatzea, non erantzukizuneko lanpostuetan sartzeko edo haietan irauteko ahaldundutze kolektiboa motibatu eta sustatuko den.




Orain arte izandako lau edizioen azterketa:

Lehenengo bi edizioetan, hamabosna partaideko hiru talde osatu ziren (1 Leioan, 1 Bilbon eta beste bat mistoa Gipuzkoa-Araban).

Hirugarren edizioan, parte-hartzeak gutxiago izan ziren, talde bakarra osatuz Leioan. Ordea

laugarren edizioa 2018ko urriaren 17an hasi zen eta 2019ko otsailaren 13an amaituko da. Bertan bi talde osatu dira Leioan eta orotara 28 emakume ari dira parte hartzen.

Guztira 133 emakumek egin dute programa.




9 Irudia: Akademe programan parte hartu duten IIP emakumeak

Programako ohiko daten eta irakasleen klase orden arteko arazoa zela eta, bosgarren ediziorako publizitate kanpaina martxo/apirilera pasatzea erabaki da. Izena emateko epea ekaina izango litzateke.

2.2.- Ikasketa feministei edo genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria

Ikerketan genero ikuspegia bultzatzeko, baita genero ikerketak eta ikerketa feministak ere, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako II Planaren 2.2.7. - *Ikasketa feministei edo generokoei buruzko UPV/EHUko tesi onenaren Micaela Portilla Saria finkatzea*.- ekintza betetze arren, UPV/EHUK MICAELA PORTILLA VITORIA Sariaren V ediziorako deialdia egiten du ikasketa feministei eta genero ikerketei buruzko UPV/EHUko tesi onenarentzat.

Micaela Portilla Saria 2013tik banatzen da eta UPV/EHUUn ikasketa feminista edo genero ikerketen gaineko tesi onenak saritzen ditu. Urte hauetan zehar **36 hautagai aurkeztu dira orotara**.




10 Irudia: Micaela Portilla sarira aurkeztutako tesiak

- III. eranskinean, sei edizioetan saria irabazi duten tesien datuak bildu ditugu.

2.3.- UPV/EHUko Doktorego ikasleak jardunaldietara, biltzarretara eta mintegietara joateko laguntzen deialdia

Deialdi honen helburua ikerketa feministak eta generokoak sustatzea da, UPV/EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako indarrean dagoen planak adierazten duen bezala.

Deialdi honek **jardunaldietara, biltzarretara edo mintegietara joateko (genero ikuspegia txertatzen duen edo/eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoa den txosten bat, komunikazio bat, poster bat, etab. aurkeztuta) laguntza** barne hartzen ditu, doktorego tesi batekin zerikusia duten lanak egiteko eta/edo ezagutarazteko helburuarekin. Doktorego tesiak UPV/EHU izena emanda egon beharko du eta ikasketa feministen eta generokoen arloko ikerketa barne hartu beharko du, bai eta aniztasun afektibo-sexualari eta genero identitateari buruzkoak ere. Arreta berezia eskainiko zaie ikerketa feminista eta generoko gutxi dituzten ezagutza arloei: **irakaskuntza teknikoak, zientzia esperimentalak eta osasun zientziak**.



11 Irudia: Parte-hartzeko deialdian emandako laguntza kopurua

Grafikoan ikus daitekeen moduan, gero eta laguntza gehiago ematen zaizkie nola emakumeei hala gizonei, jasotako eskariak gehitu egin baitira. Doktoretza programan dauden ikasleek interes handia dute deialdi honetan.

Azken edizioan, **2018** urteari dagokionean, 47 laguntza onartu dira, guztira **20.094'57 euro** emanez.

3. Unibertsitate bizitza

3.1.- Sexu aldagaia sartzea

Berdintasunerako Zuzendaritzak Unibertsitatea zenbakitan dokumentuak biltzen dituen datuak taldekatzen diren 12 atalen berrikuspena egin zuen, 2015eko otsailean. Ondoren, hobetzeko hainbat iradokizun biltzen zituen txosten bat idatzi zuen, datu garrantzitsuak bermatzeko premiari dagokionez, eta hizkera ez-sexista erabiltzeko gomendioak ere erantsi zituen. Aurten berretsi egin da datuak sexu aldagaia aintzat hartuta biltzen direla beti, eta normalduta dagoela sexu aldagaia duten datuen bilketa eta transferentzia.

3.2.- Hirugarren markagailua

Gobernu Kontseiluak, azaroaren 2an, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordearen proposamenari jarraikiz, UPV/EHUko dokumentu ofizialetan sexu-generoa identifikatzeko **HIRUGARREN MARKAGAILU** bat jartzea onartu zuen. Lauki EZ-BITARRA da. Berrikuntza horrekin, hertsiki gizona-emakumea binomioan oinarrituriko sexu-generoko sistema bitarra hautsi nahi da, gizona ala emakumea laukiarekin identifikatzen ez diren pertsonen beren premietara egokitutako aukera bat eskaintzeko, sentitzen duten sexu-generoarekin bat etorriko dena.

Une honetan, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza lanean ari da hura arian-arian inplementatzeko. Jarduera ildo horri lotuta, ikastegi bakoitzean komun egokiak identifikatzen ari dira, **KOMUN MISTO** gisa identifikatu daitezten.

3.3.- Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloa

UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzak 2017ko maiatzean 30 pertsonako talde misto bat jarri zuen martxan, unibertsitateko kideek eta horretarako kontratatutako kanpo bi adituk osatua. Taldeko bi adituk 8 orduko prestakuntza eman zieten gainerako kideei, 2017ko ekainean.

Berdintasunerako Zuzendaritzak dinamizatutako talde hau bi azpitaldetan banatu zen: lehenak estatuko unibertsitate publiko guztien eta EAEko erakunde nagusien protokoloak aztertu zituen. Bigarrenak entzute eta parte-hartze fasea diseinatu zuen, UPV/EHUko hiru campusetako ikastegietan iritziak, esperientziak eta ekarpenak biltzeko, genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokolo berria egiteko asmoz. 2018ko



udaberrian martxan jarri nahi zen genero indarkeriari buruzko UPV/EHUren protokolo berri bat egiteari begira.

Entzuteko eta parte-hartzeko talde dinamiketan, hogeitasei saio egin ziren irakasle-ikertzaile, AZP eta ikasleentzat, hiru campusetan, eta, guztira, **300 bat pertsonak** parte hartu zuten. Saio horietan bildutako informazioarekin, genero indarkerien aurkako UPV/EHUren Protokoloa idazteari ekin zitzaion.

Azken bertsioa lortu arte hainbat berrikuspen egin ostean, ekainaren 1ean Batzorde Intersektorialak onartu zuen aho-batez. Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 7an onartu zuen protokoloa eta urte bereko ekainaren 14an aurkeztu zen unibertsitate osoaren aurrean.

2018ko irailean, protokoloa hiru campusetan zabalduko da, unibertsitateko kide guztiei ezagutzera emateko. Era berean, protokoloan bertan jasotakoaren arabera, genero indarkeria kasuei erantzuteko batzorde bat eratuko da, eta 2018/2019 ikasturtean aurreikusten da hura formalizatzea. Batzordeko kideek gaiari buruzko prestakuntza espezifiko jasoko dute.



12 Irudia: Ikasleak entzute eta parte-hartze saioetan

Protokoloaren hedapena datorren hilabeteetarako aurreikusten da hiru campusetan. Horrela, protokoloan datorren bezala, Genero indarkeriazko kasuen arretarako batzordea sortzea aurreikusten da 2018/2019 ikasturterako. Bertako kideek gaiaren inguruko prestakuntza espezifiko jasoko dute.

Segurtasun eta osasun intercampus batzordearen bileraren ostean, 2018ko urriaren 22an, batzorde honek sexu eta sexuagatiko jazarpenaren inguruan zituen eskuduntzak Genero indarkeriazko kasuen arretarako batzordeari pasatu dizkio, Hirugarren xedapen gehigarriaren arabera. Beraz, ofizialki, protokoloa egun horretan sartzen da indarrean.

Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren protokoloko Atariko Printzipioen deklarazioan datorren bezala “UPV/EHUk konpromisoa hartzen du protokolo honen bidez genero indarkeriek sor ditzaketen arazoei aurre egiteko, beharrezkoak diren berme guztiekin eta aintzat hartuta —protokoloa idatzi, interpretatu eta aplikatzerakoan— pertsona guztiek laneko eta ikasteko giroetan indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubideari buruzko nazioarteko, Europako erkidegoko, estatuko, autonomia erkidegoko eta unibertsitateko arauak”.

	Salatzaileak		
	Ikasleak	AZP	IIP
Indarkeria fisikoa	10	1	0
Sexu jazarpena	5	0	0
Indarkeria psikologikoa	3	0	0
GUZTIRA	18	1	0

13 Irudia: Artatutako indarkeria kasuak

Orain dela gutxi *Picara Magazinek*¹ argitaratutako ikerketa batean ageri da, espainiar Estatuko unibertsitate publiko guztiak ikertuta artatutako genero indarkeria kasuei dagokienez, UPV/EHU salaketa gehien jaso dituenen artean aurkitzen dela. Datu hau positiboa da. Agerian usten du unibertsitateko kolektiboek genero indarkerien agerpenak salatzeke predisposizioa handiagoa dutela, bereziki ikasleen artean. Uste dugu, igoera hau UPV/EHUa aurrera eramandako berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko politika aktiboek eragindakoa dela. Politika hauek zenbat eta eraginkorragoak izan, orduan eta salaketa gehiago jartzen dute indarkeria jasaten duten pertsonak.

1

https://posta.ehu.es/owa/redir.aspx?C=hPm6mUul05_lmVZgiZ0DdAKJCIPS4JOOrxxS3rjWgkVc4SxIEHWCA..&URL=http%3a%2f%2fwww.pikaramagazine.com%2f2018%2f04%2fmas-de-la-mitad-de-las-universidades-publicas-espanolas-registran-casos-de-acoso%2f

4. Unibertsitate hedakuntza

4.1.- Unibertsitateko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzea

UPV/EHUko organo kolegiatuen amaierako osaera orekatua (gizonak eta emakumeak) lortzea ahalbidetuko duten formulak aztertzen hasi gara, arautegiaren aldaketak proposatzeko asmoarekin. Zehazki, puntu honetan **kremailera erako zerrendei** egiten diegu erreferentzia, UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorreko 5.4 artikuluan arautzean direnak. Organo kolegiatu batzuetan amaierako osaera ez parekidea sortu duten ohiz kanpoko desbideratzeak hauteman dira txandakako hurrenkera hau aplikatu ostean. Disfuntzio hauek ekiditeko, Berdintasunerako Zuzendaritzak Txosten bat prestatu zuen 2017ko martxoa eta apirilean zehar amaierako parekidetasuna ahalbidetzeko beharrezkoak diren arautegiaren aldaketak proposatuz. Zerbitzu Juridikoen amaierako txostena aztertuta, azken proposamena adostea eta Gobernu Kontseilura helaraztea geratzen da, bertan onartu ahal izateko.

Berdintasunerako Zuzendaritzak UPV/EHUko ikastegietako berdintasun batzordeen jarraipena egin, eta haiekin harremanetan egoten da, eta ekimen guztietan parte har dezaten bultzatzen du.

4.2.- Berdintasunari lotutako UPV/EHUren irudia gizaratean

- **Martxoaren 8a:** 2018an ekitaldi akademiko instituzional honen bederatzigarren edizioa ospatu zen **Arabako Campuseko Letren Fakultatean Giza Zientziak: genero berdintasuna eraikitzen** lemapean.

Ekitaldi honetan Francisca de Aculodi, Maria Goyri eta Micaela Portilla sariak banatzen dira Errektorearen eskutik. Sarituen zerrendak I, II eta III eranskinetan ikus daitezke.



14 Irudia: 2018ko Martxoaren 8ko mahaia eta sarituak

- **Martxa Lila:** Urtero, Leioan (Bizkaiko Campusa) martxa bat egiten da, non unibertsitateko kide guztiak daude parte hartzera gonbidatuta, lila koloreko objektu bat eramanez.
- **A25:** UPV/EHUK Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen du. Azken edizioan "Volar" filmaren emanaldia eskaini zen Zientzia eta Teknologia Fakultateko Paraninfoan.
- **Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren "Gune Anitzaren Manifestua" sinatzea:** 2017ko azaroaren



10ean, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeak "Gune Anitzaren manifestua" sinatu zuen, UPV/EHUren izenean, eta horrela UPV/EHUK bat egiten zuen ekimenarekin. Sinadura ekitaldian, prentsaurreko bat egin zen, eta bertan, UPV/EHUren izenean, errektoreorde andrea egon zen, Berdintasunerako zuzendari gisa, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren ordezkari gisa, berriz, bertako presidente andrea.

UPV/EHUK, "Gune Anitza" zigilua espazio fisiko eta birtualetan erabiltzeko konpromisoa hartzen du, gazteen artean ematen den aniztasunaren alde eginuz eta eskubide eta askatasunen berdintasun erreala babestuz.

- **Emakunderekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea:** 2018ko uztailaren 2an, UPV/EHUren eta Emakunderen arteko lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu zen. Horren bidez, bi erakundeek arteko lankidetzaren sustatzea nahi da, bereziki prestakuntza arloan. Sinadura ekitaldian egindako prentsaurrekoa UPV/EHUko Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordeak, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendariak eta Emakundeko Zuzendariak eman zuten.




15 Irudia: Berdintasunerako Zuzendaria, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko errektoreordea eta Emakundeko Zuzendariak sinaduraren unean.

4.3.- Diru laguntzarako deialdia UPV/EHUⁿ emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero aniztasuna bultzatzeko sentsibilizazio eta formakuntza ekintzak antolatzeke


Laguntza hauek igotzen joan dira urtez urte, egindako jardueri dagokienez, eta horietan izandako parte hartzea nahikoa egonkorra izan da. Hori gertatu da, neurri batean, jarduera gero eta espezifikagoak antolatzen direlako, genero ikuspegian gero eta gehiago sakontzeko asmoz. Beraz, joera nagusia hau da: "publiko guztiarentzako" jarduera masibo gutxiago antolatzea, eta sakontzeko eta ikertzeko jarduera gehiago.

Hurrengo grafikoetan, 2014. urteaz geroztik antolatutako ekitaldien eta horietan izandako parte hartzearen bilakaera ikus daiteke.



16 Irudia: Antolakuntzako deialdian jasotako eskaerak

Eskaeren gorakada bat antzeman da, urtetik urtera.



17 Irudia: Deialdi honen bidez antolatutako ekintzetan parte hartu duten pertsonak.


Deialdi honetako azken edizioan, 2018 urtekoan, 29 eskaera jaso dira, 27 emakume eta 2 gizon, guztira 20.137'81 euro eman direlarik. Eskaeren kopuruan jaitsiera nabarmena ikus daiteke, bereziki, tramitazioan burokratizazio gehiegi egoteak eraginda.

Lau urte hauetan, **14.000 pertsonak baino gehiagok** parte hartu dute antolatutako jardueretan.

4.4.- UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerraldiak hedabideetan

2014. urteaz geroztik, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza **107 aldiz** agertu da hedabideetan, eta 2018an, 21 aldiz.

Bilakaera grafikoan:



18 Irudia: Berdintasunerako Zuzendaritzaren agerpenak komunikabideetan.

UPV/EHU Aurrera eramandako berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko politika aktiboak gero eta espazio gehiago dute komunikabideetan. Zuzendaritzak eta Errektoreordetzak gero eta agerpen gehiago izan dute komunikabideetan eta horrek, zalantzarik gabe, egindako lanari zabalkunde gehiago emateko balio du. Zabalkunde horri esker ekimen berri gehiago arrakastaz aurrera eramatea ahalbidetzen du, harrera maila ere handiago da.

I. Eranskina

Francisca De Aculodi saria irabazi duten GRALen zerrenda

		LAN GARAILEA		EGILEA
I. Edizioa (2013/2014)	Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Genero ikuspegia esku-hartze sozialean. Argentinako pies x La Tierra elkartearen kasua</i>	Aitziber Ramirez de la Piscina Arrillaga.
		Gaztelania	<i>Una mirada a las comunidades vecinales del Casco Viejo de Vitoria-Gasteiz: Las mujeres en la construcción de "Comunidad"</i>	Lucia Teresa Loayza Heredia.
	Arte eta Giza Zientziak	Euskara	Hutsik	
		Gaztelania	<i>La mujer, el arte y el exilio: La subversión en la obra de Leonora Carrington y remedios Varo</i>	Adela Flamarique Unanue.
	Osasun Zientziak	Euskara	<i>Parekoen taldeen bitartez GIB daukaten emakumeen autoerrealizazioa sustatzeko Proiektua</i>	Estibaliz Aldekoa Martínez.
		Gaztelania	Hutsik	
II. Edizioa (2014/2015)	Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Emakumeak eta bertsoaritzak. Gaiak, bertsolarien paperak eta bertsoak genero ikuspuntutik</i>	Izaro Zinkunegi Barandiaran
		Gaztelania	<i>Reconstruyendo proyectos migratorios, generando espacios de encuentro: Claves para la intervención social con mujeres-madres latinoamericanas</i>	Cristina Rodríguez Espina.
	Arte eta Giza Zientziak	Euskara	<i>Identitatearen eraikuntza autoerrepresentazioaren bidez. Claude Cahun eta Frida</i>	Nagore Arzallus Alustiza.
		Gaztelania	<i>El "extraño mal" de Teresa Wilms Montt: Romanticismo y trasgresión de la normativa de género en la vanguardia chilena</i>	Maialen Lehane Lezaun.
	Osasun Zientziak	Euskara	<i>Migrazio eta Identitate maskulinoak: Esku-hartze proposamena</i>	Nora Arenas Zabaleta.
		Gaztelania	<i>La importancia de la Fisioterapia en la prevención y tratamiento de la Incontinencia urinaria en el embarazo y postparto</i>	Iraide Foronda Chueca.
	Zientziak	Euskara	<i>Ingurumen Hezkuntza proiektu baten diseinua feminismo eta etnografiaren ikuspuntutatik</i>	Aitziber Calleja Satrustegui.
		Gaztelania	Hutsik	
	Ingeniaritza eta Arkitektura	Euskara	<i>Hezkuntza eta kultur ekipamendua Portugaleteko merkatuan</i>	Iñigo Galdeano Pérez.
		Gaztelania	Hutsik	



III. Edizioa (2015/2016)	Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Gorputz adierazpena genero- rolekin apurtzeko saiakera bat de</i>	Maddi Juaristi Astiazaran.
		Gaztelania	<i>La desigualdad y violencia de género en la mujer de la República Dominicana: necesidades y claves de intervención Socioeducativa para el empoderamiento de las adolescentes de Las Terrenas</i>	Jesenia Hernandez López
	Arte eta Giza Zientziak	Euskara	<i>Dodomestika</i>	Maialen Belaustegui Lapeyra.
		Gaztelania	<i>(Punto negro)</i>	Sandra Gutiérrez Abascal.
	Osasun Zientziak	Euskara	<i>Mikromatxismoak Lantzeko Ahalduntze Programa</i>	Idoia Iturbe Telleria.
		Gaztelania	<i>Hutsik</i>	
	Zientziak	Euskara	<i>Matematikaren garapena, Emakumeen ekarpenetik abiatuta</i>	Lara Aresti Gabiola.
		Gaztelania	<i>Hutsik</i>	
IV. Edizioa (2016/2017)	Gizarte eta Lege Zientziak	Euskara	<i>Amatasuna eta kartzelak: euskal emakume batzuen esperientziak espainiako kartzeletan</i> Accesit: Ernai gazte antolakundearen urrats feminista: Aldaketaren nolakotasuna aztertzen	Garazi Otsoa Eribeko Uriarte. Maidar Galardi Fernandez De Agirre.
		Gaztelania	<i>Mordiendo el aire kalis/romis mujeres caminando hacia la igualdad</i>	Helena Bayona Carlos.
	Arte eta Giza Zientziak	Euskara	<i>Sexua eta generoa Judith Butlerren lanean: (des)eraikuntzari buruz</i>	Amaia Elejabarrieta Uribe
		Gaztelania	<i>La feminidad en el arte de Waterhouse. Ofelia y la dama de Shalott</i>	Lara Goikoetxea Armijos.
	Osasun Zientziak	Euskara	<i>Hutsik</i>	
		Gaztelania	<i>Hutsik</i>	
	Ingeniaritza eta Arkitektura	Euskara	<i>Hutsik</i>	
		Gaztelania	<i>Hutsik</i>	



II. Eranskina

MARIA GOYRI saria irabazi duten MALen zerrenda		
	LAN GARAILEA	EGILEA
I. Edizioa (2011/2012)	<i>Feminismo y piedad: un análisis de género en torno a las conversas al islam</i>	Itzea Goicolea Amiano
II. Edizioa (2012/2013)	<i>Mujeres viriles en el siglo XVIII: la construcción de la diferencia sexual en el discurso fuerista de Manuel De Larramendi</i>	Bakarne Altonaga Begoña
III. Edizioa (2013/2014)	<i>Representaciones sobre cuidar/curar de las mujeres baserritarras de Bizkaia</i> Accesit: - <i>Depresión y proceso de recuperación: agencia, género y prácticas corporales</i> - <i>Luma, Camp cultura eta euskal identitate lumadunak</i>	Irune Robles Egozkue María Zapata Hidalgo Ametz Jordan Arrieta
IV. Edizioa (2014/2015)	<i>Cuerpo, género y vejez en las viviendas colaborativas de mayores</i>	Ana Fernández Cubero
V. Edizioa (2015/2016)	<i>Euskara generoaren ispiluan barrena. Hizkuntza praktikak, bizipenak eta gogoetak Lezo eta Pasai Donibaneko nerabeen artean</i> Accesit: - <i>Birindutakoa berpizten. Ahaztutako arkitekturak eta emakumeak: Saturrarango emakumezkoen espetxearen adibidea</i>	Jaime Altuna Ramírez Garazi Lizaso Manterola
VI. Edizioa (2016/2017)	<i>Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai genero ikuspegitik</i> Accesit: - <i>Emakume ezkonduak fabriketan: arrotz izatetik nor izatera. 1970eko hamarkadan Ormaiztegiko lantegietan egindako urratsaren gakoak</i> - <i>La pasividad femenina como canon feminicida representacional</i> - <i>De Ms. Pac-Man a Aloy: La imagen de las mujeres en los videojuegos</i> - <i>Anarquismo doméstico. Soñé que mi piso estaba limpio</i> - <i>El estatus científico de la disciplina del trabajo social. Trabajo social y su relación con la feminización en la profesión: vías posibles para romper con el "techo de cristal epistemológico</i> - <i>Zientzia eta generoa</i>	Ane Labaka Mayoz Elixabete Garmendia Lasa Sofía Roda Onofri Verónica Fernández Sainz Anna Mezquita Sánchez Andrea De La Torre López Uxue Sánchez Garmendia



III. Eranskina

MICAELA PORTILLA saria irabazi duten doktorego tesien zerrenda:


	TESI GARAILEA	EGILEA
I. Edizioa (2012)	<i>Relaciones amorosas de pareja en las trayectorias vitales de las mujeres encarceladas</i>	Estibaliz De Miguel Calvo
II. Edizioa (2013)	<i>La participación de las mujeres en el mercado laboral vitoriano (1950-1975)</i>	Aritza Saenz del Castillo Velasco
III. Edizioa (2014)	<i>La transferencia de contenidos matemáticos a contextos científicos: el concepto de función</i>	Miren Begoñe Burgoa Etxaburu
IV. Edizioa (2015)	<i>Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten: Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu</i>	Itxaso Martin Zapirain
V. Edizioa (2016)	<i>Arte-ekoizpen feministak euskal testuinguru kulturean. Arte-instituzio garaikideetako praktika: Arteleku zentroa eta Montehermoso Kulturunea (1997-2012)</i>	Maidier Zilbeti Pérez
VI. Edizioa (2017)	<i>La triple presencia. Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación sociopolítica</i>	Marina Sagastizabal Emilio-Yus

IV. Eranskina

Berdintasuna zifratan


Sarrerak eta irteerak

Emakumearen banaketa zientzia arloaren arabera



Sarrerak graduka


Feminizazio altu eta baxuko gradu esanguratsuenen hautaketaren adierazpena, 2017-18



Masterrak

Ikasle emakumeen matrikulazioa zientzia eremuen arabera


Matrikulazioa, 2017-18



Doktoretza egiten ari diren emakumeak

Doktoretza egiten ari diren emakumeak zientzia eremuen arabera

Irakurritako tesiak, 2017




IIP (Ikertzaile eta irakasleak)

Emakume irakasleen banaketa


2017ko datuak

● Emakumea


○ Gizona




Irakasle Elkartuak




Irakasle Agregatuak




Katedradunak




Tituarrak




Ikertzaile iraunkorrak




Unibertsitateko kolaboratzaileak




Irakasle atxikiak




SHE irakasleak




Lan kontratudun bitarteko irakaslea




Irakasle laguntzaileak



Irakasle emeritua



Ikerbasqueko bisitaria



Ikertzaileak


IN (Ikertzaile Nagusiak)

Ikertzaileen banaketa sexuka

2017ko datuak

♀ Emakumea

♂ Gizona




Tesi Zuzendariak

Tesi zuzendarien banaketa zientzia eremuen arabera

2017an irakurritako tesiak

● Emakumeak ○ Gizonak







Karguak

Karguen banaketa sexuaren arabera

2017ko datuak

 Emakumeak

 Gizonak



AZP (Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala)

Langile emakumeen banaketa talde eta ordainsari-mailaren arabera

